



80 erakundek baino gehiagok sinatu dute Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala, sektore horrek datozen hamabost urteetan izango dituen erronkei aurre egiteko

- **Itunak alokairu eskuragarriaren eskaintza publikoa handitzeko eta 50.000 etxebizitzako parke batera iristeko, babes-etxebizitza iraunkorren kopurua parkearen guztizkoaren % 12ra igotzeko edota 2036. urtea amaitu baino lehen hiru etxetik bat birgaitzeko helburuak ezarri ditu**

88 erakunde (gizarte zibila, profesionalen kolektiboak, erakundeak eta enpresak) atxiki zaizkio *Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036ari (etxebizitzarako eskubidearen eraketa eraginkorra bizkortzeko konpromiso partekatua)*. Akordioa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bultzatu du, eta asteazken honetan sinatu da Bilbon, Euskadik arlo horretan dituen erronkei eraginkortasunez aurre egiteko etxebizitzaren esparruan herritarrekin diharduten eragileek elkarrekin, bat eginik, lankidetzan oinarrituta eta epe ertain eta luzerako ikuspegi batekin lan egin dezaten.

Dokumentua lantzeko, parte-hartze prozesu zabal bat egin da, eta ehun bat eragilek parte hartu dute tailerren eta bileren bidez, 87 erakundek idatziz aurkeztutako ideiekin. Ideia horietako asko ituna bera garatzeko erabiliko dira datozen urteetan, eta eraikuntzaren sektorearekiko lanean sakontzearen, etxegabetasunaren eta familia ugarien arretaren arloetako jarduketak egingo dira, besteak beste.

Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolak ekitaldian azpimarratu duenez, Euskadi erreferentzia da etxebizitza-politiken arloan. Ildo horretan, Autonomia Erkidegoko lege bat du, eta Estatuan inspirazio-iturri diren hainbat neurri zehatz hartu ditu, hala nola gazteei laguntzeko hartutakoak. Arriolak gogorarazi du Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza duina eta kalitatekoa izateko aukera eskubide subjektiboa dela, eta, azpimarratu duenez, hain oinarritzkoa da, beste eskubide batzuen lorpena baldintzatzen du.

"2010eko Itun Soziala berria eta aitzindaria izan zen, eta, haren arabera, euskal herritarrak eta desberdinen arteko lankidetzaren ziren etxebizitza-politiken ardatzak", adierazi du Arriolak, eta honako hau gaineratu du: *"gaur konpromisoa berretsi dugu, aurreko akordioan baino atxikimendu gehiagorekin eta pertsona guztiei etxebizitza*

duina eta egokia lortzeko aukera errazteko helburu berarekin, baina zirkunstantzia desberdinetan, Etxebizitzaren Legea baitugu orain. Lege hori mugarriz izan zen, etxebizitza izateko eskubidea osasunerako, hezkuntzarako edo mendekotasunaren arretarako eskubideen maila berean kokatu baitzuen. Aitorpen horretan, Euskadi aitzindaria izan zen”.

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial berrian, gizarte-erakundeak, etxebizitza-kooperatibak, sindikatuak, enpresa pribatuak, profesionalen elkargoak, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta klusterrak daude ordezkatuta. “Oso talde heterogeneoa da, herrialde-itun handi bat lortzeko eta, era horretan, etxebizitzaren arloan kudeaketa eraginkorragoa lortzeko adostasun-puntuak aurkitzen jakin duena”, adierazi du sailburuak. Halaber, aurre egin beharreko alderdiak zerrendatu ditu, hala nola energia-pobrezia, alokairuko etxebizitzaren eskaintza nahikorik eza eta parkea bizikidetzak unitateen eta bizi-estiloen eredu berrietara egokitzeko beharra.

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean, lau xede kuantitatibo ezartzen dira 2036rako, baita lehentasunezko sei jarduketako-ildo ere, helburu horiek lortzeko. Haien artean, azpimarratu beharra dago 2036. urterako Autonomia Erkidegoko etxebizitza nagusien % 5 alokairu eskuragarriaren eskaintza publikora bideratzeko helburua (50.000 etxebizitza). Halaber, babes publikoko etxebizitza-parke iraunkorra etxebizitza nagusien % 12ra igotzeko helburua nabarmentzen da. Era berean, hamabost urteko epean urtean eraikinen % 3 birgaitu daitezkeen lortzea planteatzen da (gaur egun % 1,5 birgaitzen dira). Horrela, beraz, 350.000 etxebizitza eraberritu behar dira epe horretan (eraikitako hirutik bat, gutxi gorabehera). Xedeen artean, halaber, baliabide ekonomiko nahikoak dituzten kolektiboentzat etxebizitza libreen (obra berrikoen zein birgaitutako etxebizitzaren) parke bat izateko beharra ezartzen da.

Xede horiek lortzeko, itunak lehentasunezko jarduketako-ildo batzuk eta haiek abian jartzeko jarraibideak aurreikusten ditu:

- **Inbertsio handiagoa etxebizitzan, pizgarri fiskaletan oinarritua.** Etxebizitza-arloko gastu publikoa pixkanaka handitzea, BPGaren % 1,5 ingurura iritsi dadin, eta birgaitzeari lotutako inbertsio pribatua BPGaren % 5 ingurukoa izatea, Europako herrialderik aurreratuenen antzera.
- **Etxebizitza-politikaren gizarte-dimentsioan sakontzen jarraitzea.** Etxebizitza-politikaren eta gainerako gizarte-politiken (gizarte-zerbitzuak, gazteak, adinekoak, desgaitasuna, berdintasuna, enplegua eta abar) arteko integrazio handiagoa lortzearen aldeko apustua egiten da. Horretarako, hainbat errealitateri (hala nola etxegabetasunari, familia ugariari eta gazteek etxebizitza eskuratzeko aukerari) erantzun integralagoak emango dizkieten zerbitzuak eta programak jarriko dira abian.
- **Udal-agenda estrategikoan etxebizitza txertatzeko aukera zabaltzea,** eta, ildo horretan, tokiko etxebizitza-planak lantzeko babes-ildo bat abian jartzea.
- **Eraikuntza-sektore erakargarri, lehiakor eta berritzaile bat osatzea,** eta, horretarako, sektoreko talentuaren trebakuntza eta garapena eta haren berrikuntza-proiektuak bultzatzea eta sektorean emakume gehiago sartzeko aukera erraztea.



- **Datu-adimena eta ebaluazio aurreratua;** ildo horretan, Etxebizitzako Behatokiaren zeregina indartu eta instituzionalizatu egingo da.
- **Inplikazio eta lankidetzaren publiko-pribatu-soziala;** Etxebizitzaren Foroa abian jarri eta dinamizatuko da (Itunaren bitartez konprometitutako eragileen parte-hartzerako eta haien arteko lankidetzarako guneko egonkor gisa), eta herritarrek parte hartzeko prozesuak bultzatuko dira.

Akordioak helburuak lortzera bideratutako inplikazio eta lankidetzaren publiko, pribatua eta soziala indartzeko beharrezkoak diren mekanismoak jasotzen ditu, eta Etxebizitzako Behatokiaren bitartez, urteko jarraipen-txosten publiko bat egingo da. Txosten horren bidez, aurrerapenak monitorizatu eta beharrezkoak diren doikuntzak gardentasun osoz egin ahal izango dira.

Etxebizitzaren aldeko Euskadiko Itun Soziala 2022-2036 sinatu duten erakundeak

| | | |
|--|--|--|
| Abanca | Colegio Territorial de Administradores de Fincas de Gipuzkoa y Álava | Ihobe |
| Alokabide | Comisión de Recursos Sociales y Vivienda del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y Ciudadanos Inmigrantes del Gobierno Vasco | Ilte. Colegio Notarial del País Vasco |
| AM Arkitektura | Confebask.Confederación Empresarial Vasca-Euskal Enpresaren Konfederakuntza | Ilte. Colegio de la Abogacía de Bizkaia |
| Ametsak Sortzen Elkartea-Asociación Vasca de Cohousing | Debegesa | Ingeteam |
| AMICYF Euskadi-Asociación de Mantenedores de Instalaciones de Calor y Frío | Departamento de Territorio y Acción por el Clima del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz | Instituto de Arquitectura de Euskadi |
| APNABI Autismo Bizkaia | Donostiako Etxegintza | Irunvi-Sociedad Pública de Vivienda de Irún |
| Área Vivienda Ayuntamiento de Bilbao | EAPN Euskadi-Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social | Kale Dor Kayiko |
| Arenhos Advisors | EDE Fundazioa | KONFEKOOP-Confederación de Cooperativas de Euskadi |
| Arkitektura Goi Eskola Teknikoa-Escuela Técnica | Ekonomisten Euskal Elkargoa-Colegio Vasco de Economistas | Kutxabank |

| | | |
|---|--|---|
| Superior de Arquitectura UPV/EHU | | |
| ASCOBI-BIEBA Asociación de Constructores y Promotores Inmobiliarios de Bizkaia | Elkarbidean Etxe Kolaboratiboak | Laboral Kutxa |
| ASCONGI Asociación de Constructores y Promotores de Gipuzkoa | Elkartean –Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Euskadi | Lanbide |
| Asociación Bizitegi | Elkartu-Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa | Mondragon Unibertsitatea |
| Asociación Egunsentia para la promoción de la convivencia para mayores | Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea | MUGA Capital Market |
| ASVE Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana | ERAIKUNE Clúster de la Construcción en el País Vasco | Oficina de Vivienda de Zarautz-Zarautz Lur |
| Aubixa Fundazioa | Etxebizitza Kooperatiben Federazioa-BIZIKOOP-Federación de Cooperativas de Vivienda | Q-Living Property Investments |
| AVS Euskadi Asociación de Gestores Públicos de Vivienda y Suelo de Euskadi | Eudel | SEA Uneca |
| Banco de Sabadell | Euskadiko Gazteriaren Kontseilua EGK | Sestao Berri |
| Banco Santander | EUSKOFEDERPEN | Sociedad de Gestión Urbanística ERETZA |
| Beruala | EVE-Ente Vasco de la Energía-Energiaren Euskal Erakundea | Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete |
| Caixabank | FEKOOR-Federación Coordinadora de personas con discapacidad física y/u orgánica de Bizkaia | Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba SURADESA |
| Caja Rural de Navarra | FEVAS Plena Inclusión Euskadi | SURBISA Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao |
| Cáritas Bizkaia | Fundación Eguzkilore | Triodos Bank |
| Casa Gestio | Fundación Laboral de la Construcción País Vasco | UGT Euskadi |
| COAVN Colegio Oficial de Arquitectos Vasconavarro | Fundación Tecnalia Reserarch&Innovation | Unión de Consumidores de Euskadi |
| Colegio de Registradores de la Propiedad Mercantil y de Buena Muebles de España | Futubide Fundazioa | WISESA |
| Colegio Oficial de Agentes de la Propiedad Inmobiliaria de | Gautena Asociación Guipuzcoana de Autismo | Viviendas Municipales de Bilbao-Bilboko Udal Etxebizitzak |



| | | |
|--|--|--|
| Bizkaia | | |
| Colegio Oficial de Agentes de la Propiedad Inmobiliaria de Gipuzkoa | Grupo Eibar | |
| Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos técnicos de Bizkaia-Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala COATG | Hirukide Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi | |
| Colegio Oficial de la Arquitectura Técnica de Araba/Álava | Ibercaja Banco | |
| Colegio Territorial de Administradores de Fincas de Bizkaia | ICA Home | |